

# HITZEkin A2

## Autoikaskuntza

*æk*  
22.korrika

# HITZEkin

Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

## HELBURUAK

Sekuentzia didaktiko hau KORRIKA hurbil dugula egiteko pentsatuta dago, eta helburu nagusia du ikasleak KORRIKAn parte hartzen animatzea (norberaren herritik pasatzen denean korrika eginez, KORRIKA laguntzaile bilakatzuz...). Horrez gain, mailari dagozkion eduki batzuk ere landuko ditugu, jakina.

## OHAR GARRANTZITSUA

Ikasmaterial honekin batera, B1 mailatik aurrera, "KORRIKA, historikoa!" joko digitala eskaintzen da. Joko hori Euskal Herri mailan egitea proposatzen da, eta sariak egongo dira.

Jokoan erabiltzen diren bideoak, galderak eta erantzunak zailak dira A1 eta A2 mailako ikasleentzat; edonola ere, horiek lehiaketan parte hartu nahi izanez gero, honako bide hau proposatzen dizugu:

- Joko digitala beharrez, erabil ezazu ikus-entzunezkoen zein paperaren bidez jokatzeko aukera.
- Bideo bakoitza ikusi ondoren, har ezazu tartetxo bat ikusitakoaz mintzatzeko.
- Galderak eta erantzuteko aukerak pantailan daudela, eten ezazu ikustaldia, eta lagundu ikasleei pantailan irakurtzen dena ulertzen.

Horrela jokatzeko euskarri guztiak (jokatzeko arauak, ikus-entzunezkoak...) B1 mailatik gorako unitateetan aurkituko dituzu.

Jarduera honetako ariketak online bideratu nahi badituzu, egin klik lotura honetan: [HitzEkin A2](#).

## PROZEDURA

### 1. EZAGUT DEZAGUN KORRIKA

Jarduera honetan, "HitzEkin" aldizkariaren laguntzaz, KORRIKari buruzko informazio interesgarria gogoraraziko diegu ikasleei: historia apur bat, aurtengo KORRIKari buruzko datuak... Horrekin batera, KORRIKA laguntzaile izaten animatuko ditugu.

— Helarazi ondoko dokumentuak ikasleari:

- a. Jauderak egiteko orrialdeak (3.-12. or.).
- b. "KORRIKAn aditua zara? GALDERAK" eta "KORRIKAn aditua zara? ERANTZUNAK" ikus-entzunezkoak.

### 2. "KORRIKA, HISTORIKOA!" JOKOA

Jolas digital horren bitartez, KORRIKAREN inguruan sakondu nahi dugu, modu ludikoan, mugikorrek edo ordenagailu eramangarriak erabiliz. Jokoa ikasgelaz ikasgela egingo dugun arren, puntuazioaren jarraipena euskaltegi eta Euskal Herri mailan egingo da, eta sariak ere egongo dira.

— Egoki iritziz gero, proposatu ikasleari "KORRIKA, historikoa!" jokoan parte hartzeko. Jokoa bideratzeko euskarri guztiak (jokatzeko arauak, ikus-entzunezkoak...) B1 mailatik gorako unitateetan aurkituko dituzu..

## KORRIKAN ADITUA ZARA?

## ERANTZUNAK JASOTZEKO FITXA


IRAKURRI BIDEOAREN GALDERAK, ETA AUKERATU ERANTZUN ZUZENAK.


Lee las preguntas del video y escoge las respuestas correctas.


Lisez les questions de la vidéo et choisissez les bonnes réponses.


Izena: \_\_\_\_\_

## 1. GALDERA


 A.....


 B.....


 C.....

 D.....

## 2. GALDERA


 A.....


 B.....


 C.....

 D.....

## 3. GALDERA


 A.....


 B.....

 C.....


 D.....


## 4. GALDERA


 Egia


 Gezurra

## 5. GALDERA


 A.....


 B.....

 C.....


 D.....


## 6. GALDERA

 Egia


 Gezurra


## 7. GALDERA

 Egia


 Gezurra


## 8. GALDERA

 Egia


 Gezurra


## 9. GALDERA


 Egia

 Gezurra

## 10. GALDERA

 A.....

 B.....

 C.....

 D.....

## 11. GALDERA

<input type="checkbox"/> A.....	<input type="checkbox"/> B.....
<input type="checkbox"/> C.....	<input type="checkbox"/> D.....

## 12. GALDERA

<input type="checkbox"/> A.....	<input type="checkbox"/> B.....
<input type="checkbox"/> C.....	<input type="checkbox"/> D.....

## 13. GALDERA

<input type="checkbox"/> A.....	<input type="checkbox"/> B.....
<input type="checkbox"/> C.....	<input type="checkbox"/> D.....

## 14. GALDERA

<input type="checkbox"/> A.....	<input type="checkbox"/> B.....
<input type="checkbox"/> C.....	<input type="checkbox"/> D.....

## 15. GALDERA

<input type="checkbox"/> A.....	<input type="checkbox"/> B.....
<input type="checkbox"/> C.....	<input type="checkbox"/> D.....

## 16. GALDERA

<input type="checkbox"/> A.....	<input type="checkbox"/> B.....
<input type="checkbox"/> C.....	<input type="checkbox"/> D.....

## 17. GALDERA

<input type="checkbox"/> A.....	<input type="checkbox"/> B.....
<input type="checkbox"/> C.....	<input type="checkbox"/> D.....

## 18. GALDERA

<input type="checkbox"/> A.....	<input type="checkbox"/> B.....
<input type="checkbox"/> C.....	<input type="checkbox"/> D.....

## 19. GALDERA

<input type="checkbox"/> A.....	<input type="checkbox"/> B.....
<input type="checkbox"/> C.....	<input type="checkbox"/> D.....

## 20. GALDERA

<input type="checkbox"/> A.....	<input type="checkbox"/> B.....
<input type="checkbox"/> C.....	<input type="checkbox"/> D.....

## KORRIKAREN HISTORIA LABURRA

### IRAKURRI TESTUA ETA LOTU LETRA LODIZ IDATIZTAKO HITZAK ESANAHIEKIN.

Lee el texto y une las palabras en negrita con sus significados.

Lis le texte et associe les mots en gras avec leur sens.

1980a zen. Lagun batzuk etxe batean afaltzen ari ziren. **Euskaltzaleak**<sup>1</sup> ziren, eta afariko gaia euskara zen: gure hizkuntza nola **bultzatu**<sup>2</sup>. Urte batzuk lehenago, 1977an, lehenengo Kilometroak egin zen Beasain-Lazkaon, eta **antzeko**<sup>3</sup> zerbait **antolatu**<sup>4</sup> nahi zuten. Antzeko zerbait, baina handiagoa: Euskal Herri osoa zeharkatu<sup>5</sup>, korrika eta gelditu gabe.

Horrela, 1980ko **udazkenean**<sup>6</sup> lehenengo KORRIKA egin zen. KORRIKA hura Oñatitik atera zen, 1980ko azaroaren 29an, eta Bilbora iritsi zen abenduaren 9an. Bidean korrikalariak **lekuko**<sup>7</sup> bat eraman zuten, **eskuz esku**<sup>8</sup> pasatuta.

Lehenengo KORRIKA antolatzea lan handia izan zen. Eta **ondoko**<sup>9</sup> edizioetan ere **arazo**<sup>10</sup> bat baino gehiago izan ditu KORRIKAK. Hasierako edizioetan alderdi politiko batzuek KORRIKari boikot egitea eskatu zuten; baina KORRIKA egin zen. Bigarren KORRIKAn Nafarroako gobernadore zibilak lasterketa Nafarroan ibiltzea **debekatu**<sup>11</sup> nahi izan zuen; baina KORRIKA egin zen. Hamabosgarren KORRIKAn elurrak Urizaharreko **mendatea**<sup>12</sup> itxi zuen; baina KORRIKA egin zen.



22. KORRIKA 2021eko **udaberrian**<sup>13</sup> antolatu nahi zuen AEK-k. Baina COVID-19ak plana **izorratu**<sup>14</sup> zuen. Hala ere, boikot, debeku, **elurte**<sup>15</sup> **eta abarrek**<sup>16</sup> ez dute **lortu**<sup>17</sup> KORRIKA gelditzea, eta **zomorro**<sup>18</sup> batek ere ez du lortuko. Hala, laster KORRIKA egingo da, eta Euskal Herri osoa euskaltzalez beteko du.

Nik neuk parte hartuko dut KORRIKAn. Eta zu?

1. **Euskaltzale:** vascófilo, -a; bascophile

2. **Bultzatu:** \_\_\_\_\_

3. **Antzeko:** \_\_\_\_\_

4. **Antolatu:** \_\_\_\_\_

5. **Zeharkatu:** \_\_\_\_\_

6. **Udazken:** \_\_\_\_\_

7. **Lekuko:** \_\_\_\_\_

8. **Eskuz esku:** \_\_\_\_\_

9. **Ondoko:** \_\_\_\_\_

10. **Arazo:** \_\_\_\_\_

11. **Debekatu:** \_\_\_\_\_

12. **Mendate:** \_\_\_\_\_

13. **Udaberri:** \_\_\_\_\_

14. **Izorratu:** \_\_\_\_\_

15. **Elurte:** \_\_\_\_\_

16. **Eta abar:** \_\_\_\_\_

17. **Lortu:** \_\_\_\_\_

18. **Zomorro:** \_\_\_\_\_

a) problema; *problème*

b) prohibir; *interdire*

c) puerto de montaña; *port de montagne*

d) parecido, -a; *pareil, -eille*

e) de mano en mano; *de main en main*

f) otoño; *automne*

g) fastidiar; *déranger*

h) **vascófilo, -a; bascophile**

i) organizar; *organiser*

j) nevada; *chute de neige*

k) etcetera; *et cetera*

l) fomentar; *promouvoir*

m) bicho; *punaise*

n) primavera; *printemps*

ñ) testigo; *témoin*

o) conseguir; *réussir*

p) siguiente; *suivent*

q) atravesar; *traverser*

## 22. KORRIKA

OSATU TESTUA, HITZ EDO EGITURA EGOKIAK AUKERATUTA.

Completa el texto escogiendo las palabras o estructuras correctas.

Complétez le texte en choisissant les mots ou les structures appropriés.

22. KORRIKA Amurriotik aterako da, \_\_\_\_\_ (1), eta Donostian bukatuko da, \_\_\_\_\_ (2). Lasterketak 2.500 kilometro *inguru*<sup>1</sup> egingo ditu, eta korrikalariak lekukoa eta barruko mezu sekretua eramango dituzte, eskuz esku pasatuta, Amurriotik Bilboraino.

Hitzekin: 22. KORRIKAren leloa<sup>2</sup>

**Aurtengo**<sup>3</sup> KORRIKA hogeita bigarrena da. Pilotalekuetan partida asko hogeita bi tantura jokatzen dira; azken tantua, hogeita bigarrena, \_\_\_\_\_ (3) da, partida \_\_\_\_\_ (4) tantua. Hogeita bigarren KORRIKA honela planteatu nahi da: partida irabazteko **garaia**<sup>4</sup>, euskararen alde. Nola? Hitzarekin eta **Ekinarekin**<sup>5</sup>. Horregatik, 22. \_\_\_\_\_ (5) leloa "Hitzekin" da.



1. KORRIKArako lekukoa Remigio Mendiburuk diseinatu zuen. Gaur egun, lekuko hori San Telmo Museoaan dago, eta lasterketan \_\_\_\_\_ (6) kopia erabiltzen da.



22. KORRIKAK Pirritx, Porrotx eta Marimotots **omenduko**<sup>6</sup> ditu

KORRIKA bakoitzak pertsona edo **erakunde**<sup>7</sup> bat omentzen du. Aurtengo \_\_\_\_\_ (7) Pirritx, Porrotx eta Marimotots izan dira. Aiora Zulaikak, Joxe Mari Agirretxek eta Mertxe Rodriguezek pailazo-hirukotea **sortu**<sup>8</sup> zuten 1987an, Lasarte-Orian, eta 34 urtez aritu dira euskararen alde \_\_\_\_\_ (8). Lan hori eskertzeko, 22. KORRIKAren omenaldia hartu dute \_\_\_\_\_ (9) Tolosan, urtarrilaren 7an.



### KORRIKAREN kanta

KORRIKAREN 22. edizioko kanta Iruñeko Golem Baiona **aretoan**<sup>9</sup> aurkeztu da, abenduaren 16an. \_\_\_\_\_ (10) "Hitzekin" du izena, letra \_\_\_\_\_ (11) idatzi du, eta musika Nerea Urbizuk egin du. Kantariak Nerea Urbizu, Anarire eta Ane García dira.

### Euskaltegiatarako ekarpen ekonomikoa

KORRIKAK **helburu**<sup>10</sup> bi ditu: euskara kalera \_\_\_\_\_ (12) eta euskaltegien lana indartzeko **baliabide**<sup>11</sup> ekonomikoak \_\_\_\_\_ (13). Horretarako, hiru \_\_\_\_\_ (14) daude: kilometroen **salmenta**<sup>12</sup>, materialen salmenta eta KORRIKA laguntzailea. Aurtengo edizioan, AEK-k azken bidea indartu nahi du: **ahal beste**<sup>13</sup> euskaltzale KORRIKA laguntzaile bilakatu nahi ditu.

(1)

MARTXOKO 30AN  
MARTXOTIK 30AN  
MARTXOAREN 30EAN

(2)

APIRILAREN 9AN  
APIRILEKO 9ETAN  
APIRILAREN 9ETAN

(3)

GARRANTZITSUAGOA  
GARRANTSITSUENA  
GARRANTZITSUAGO

(4)

IRABAZTEN  
IRANAZTEA  
IRABAZTEKO

(5)

KORRIKAN  
KORRIKAREN  
KORRIKAKO

(6)

GORRITIREN  
GORRITIKO  
GORRITIK

(7)

OMENDUAK  
OMENDUTA  
OMENDUTAK

(8)

LAN EGITEN  
LAN EGIN  
LAN EGITEA

(9)

PAILAZOEK  
PAILAZOK  
PAILAZOAK

(10)

ABESTIAK  
ABESTIEK  
ABESTIA

(11)

SUSTRAI COLINA BERTSOLARIAK  
SUSTRAI COLINAK BERTSOLARIAK  
SUSTRAI COLINA BERTSOLARIA

(12)

ATERAZTEN  
ATERATZEA  
ATERATZEKO

(13)

BILTZEN  
BILDU  
BILTZEA

(14)

BIDE  
BIDEA  
BIDEAK

1. **Inguru**: más o menos; *plus o moins*

2. **Lelo**: lema; *slogan*

3. **Aurtengo**: de este año; *cette année*

4. **Garai**: momento; *moment*

5. **Ekin**: acometer; *entamer*

6. **Omendu**: homenajear; *rendre hommage*

7. **Erakunde**: organozación; *organisation*

8. **Sortu**: crear; *créer*

9. **Areto**: recinto; *salle*

10. **Helburu**: objetivo; *objectif*

11. **Baliabide**: recurso; *recours*

12. **Salmenta**: venta; *vente*

13. **Ahal beste**: tanto como sea posible; *autant... que possible*

## KORRIKAREN AHIZPAK

**OSATU TESTUA, FALTA DIREN ADITZ LAGUNTZAILEAK IDATZIZ.**

Completa el texto escribiendo los verbos auxiliares que faltan.

Complétez le texte en écrivant les verbes auxiliaires manquants.

Berrogei urte hauetan KORRIKA euskararen aldeko **ekimenik**<sup>1</sup> handiena **bilakatu**<sup>2</sup> da, eta haren famak, apurka-apurka, Euskal Herriko mugak **gainditu**<sup>3</sup> \_\_\_\_\_ (1). Horrela sortu dira KORRIKAREN ahizpak: hizkuntza **gutxitu**<sup>4</sup> batzuen aldeko antzeko ekimenak.

### Katalanaren eta galizieraren aldeko lasterketak

1993an KORRIKAREN lehenengo ahizpa jaio \_\_\_\_\_ (2), Katalan Herrietan. Ekimen hura *Correllengua* **bataiatu**<sup>5</sup> \_\_\_\_\_ (3). Lehenengo edizioa Mallorcan antolatu zen, 1993an; eta bigarrena, Valentzian, 1995ean.

2000. urtean, KORRIKAREN bigarren ahizpa jaio zen, Galizian: *Correlingua*, galiziera hizkuntzaren alde lan egiteko ekimena.

### KORRIKAREN ahizpak, Europan zehar

2008an Britainiara iritsi zen KORRIKAREN idea, eta *Ar Redadeg* lasterketaren lehenengo edizioa antolatu \_\_\_\_\_ (4), bretoiara hizkuntzaren alde. Edizio hartan 600 kilometro inguru bete \_\_\_\_\_ (5) korrikalariak, Naonedetik (Nantes) Karaez-eraino (Carhaix). *Ar Redadeg* Euskal Herriko KORRIKA bezala antolatzen da: bi urtez behin egiten da, korrikalariak txandaka ibiltzen \_\_\_\_\_ (6) gau eta egun, hasieratik amaiera arte lekuko bat eramaten \_\_\_\_\_ (7), eta lekukoaren barruan mezu sekretu bat gordetzen da.

Bi urte geroago, 2010ean, Rith lasterketak Irlanda osoa zeharkatu \_\_\_\_\_ (8) bertako gaelikoaren alde. Eta, Britainiar uharteak utzi gabe, 2014an galestarrak Ras yr Iaith antolatzen hasi \_\_\_\_\_ (9).

Azken urteotan, beste hiru ahizpa txiki jaio \_\_\_\_\_ (10) KORRIKARI Europan: 2018an *Le Passem* lasterketa sortu zen, okzitaniararen alde; 2020an *Sprochrenner*, alsazieraren alde; eta 2021ean, azkenik, *Currilingua* etorri zen mundura, korsikeraren alde.

### Lefkantun, ahizpa txiki amerikarra

2016an KORRIKAK Atlantikoa gurutzatu \_\_\_\_\_ (11) eta maputheen lurretara iritsi zen. Eta han KORRIKAREN ahizpa amerikarra jaio zen: *Lefkantun*, mapuzugun hizkuntzaren aldeko lasterketa. Lehenengo *Lefkantun* Temuco herrian antolatu zen (Araucanía, Txile).



1. **Ekimen**: iniciativa; *initiative*
2. **Bilakatu**: convertir(se); *devenir*
3. **Gainditu**: rebasar; *surpasser*
4. **Gutxitu**: minorizado, -a; *minorise, -sée*
5. **Bataiatu**: bautizar; *baptiser*



## “KORRIKA LAGUNTZAILEAK NIRE BIZITZA ALDATU DU”

### IRAKURRI TESTUA ETA BERRIDATZI IRAGANEAN.

Lee el texto y reescribelo en pasado.

Lisez le texte et réécrivez les phrases au passé, comme dans l'exemple.



### Iñazio urtarrilaren 10ean, KORRIKA laguntzaile egin aurretik.

“**Gizajo**<sup>1</sup> bat naiz. Ez zait ezer ondo ateratzen. Lanpostu guztiak galtzen ditut. Plan bat egin nahi dudan bakoitzean, lagunek zeregin **garrantzitsuren**<sup>2</sup> bat izaten dute, beti: ezkontza bat, **hileta**<sup>3</sup> bat, **lapikoa**<sup>4</sup> sutan... Maskotekin ere ez dut zortetik izaten: Pituk, nire katuak, leihotik ihes egin du, zazpigarren **solairuan**<sup>5</sup> bizi garela kontuan hartu gabe; eta arraintxoia ito egin zait. Semaforo guztiak gorri aurkitzen ditut. Kaleko banku batean esertzen naizenean, beti egoten da margotu **berri**<sup>6</sup>. **Zorigaiztokoa**<sup>7</sup> naiz!”



### Iñazio martxoaren 1ean, KORRIKA laguntzaile egin ondoren.

Bizitza zoragarria da. Dena ateratzen zait ondo: lanak edonon agertzen zaizkit, **perretxikoak**<sup>8</sup> bezala; lagunak ezin dira ni gabe bizi; telefonoz gestio bat egin behar dudan bakoitzean, beti izaten da langile **gizatiar**<sup>9</sup> bat libre, nirekin hitz egiteko. Zoriontsua naiz!

Eta zuk nor izan nahi duzu, urtarrileko Iñazio ala martxokoa? Ez izan kamikazea, ez arriskatu eta egin zaitetz KORRIKA laguntzaile. Paradisua zure zain dago; eta aurkitzen ez baduzu ere, kontuan hartu KORRIKA aurrera ateratzen laguntzen ari zarela. Ez da gutxi, ezta?

## Egin zaitetz laguntzaile

### Korrika laguntzailea izatearen **abantailak**<sup>10</sup>:

• Astero, **zozketak**<sup>11</sup> egingo ditugu LAGUNTZAILEEN artean... **300 sari baino gehiago**...

• Oro har, **KORRIKA**ren ekimenetan **lehentasuna**<sup>12</sup> edo **deskontuak** izango dituzu.

• Deskontuak AEK-ko ikastaroetan ere. AIZU! aldizkariko **harpidetzan**<sup>13</sup>...


• Eta, **aldiro-aldiro**<sup>14</sup>, gure berri jasoko duzu **KORRIKA laguntzaileentzako buletinaren** bidez.

... eta **garrantzitsuena**: **KORRIKA**ren parte zara, zure laguntzaz egingo dugulako aurrera.

**Eskerrik asko!**



ORAIN BERRIDATZI AURREKO ORRIALDEKO TESTUAK IRAGANEAN, ADIBIDEETAN BEZALA:



### A.

"Aurreko KORRIKAn, 2019an, ez nintzen KORRIKA laguntzaile izan. Gizajo bat nintzen. Ez zitzaidan ezer ondo ateratzen. \_\_\_\_\_

---



---



---



---




---



---



---



### B.

"Aurreko KORRIKAn, 2019an, KORRIKA laguntzaile izan nintzen. Bizitza zoragarria zen. \_\_\_\_\_

---



---



---



---



---



---



---

1. **Gizajo:** infeliz (hombre); *pauvre (homme)*
2. **Garrantzitsu:** importante; *important, -e*
3. **Hileta:** funera; *funérailles*
4. **Lapiko:** puchero; *marmite*
5. **Solairu:** piso; *étage*
6. **Berri:** recién; *récemment*
7. **Zorigaiztoko:** desgraciado, -a; *infortuné, -e*

8. **Perretxiko:** seta; (gros) *champignon*
9. **Gizatiar:** humano, -a; *humain, -e*
10. **Abantaila:** ventaja; *avantage*
11. **Zozketa:** sorteo; *tirage au sort*
12. **Lehentasun:** prioridad; *priorité*
13. **Harpidetza:** suscripción; *souscription*
14. **Aldiro:** periódicamente; *périodiquement*

**aek**

# 22. korrika HITZEKIN

Amurriotik Donostiara 2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era



korrika.eus

**MARTXOAK 31 OSTEGUNA**

Amurrio	16:30
Arespalditza	17:19
Artziniega	18:15
Balmaseda	19:29
Zalla	20:18
Gueñes	21:02
Gordexola	21:36
Okondo	22:06
Laudio	22:38
Ugao	23:51

**APIRIK 1, OSTIRALA**

Arrigorriaga	00:20
Basauri	01:03
Etxebarri	01:54
Galdakao	02:27
Zornotza	03:29
Jurreta	04:44
Durango	05:11
Abadino	06:00
Elorrio	06:55
Berriz	07:40
Zaldibar	08:10
Mallabia	08:36
Ermua	08:59
Eibar	09:30
Elgoibar	10:16
Soraluze	10:55
Bergara	11:59
Arrasate	12:57
Aretxabaleta	13:43
Eskoriatza	13:56
Legutio	15:00
Urbina	16:00
Luko	16:26
Durana	16:58
Gasteiz (Bergarako ateak)	17:09
Gasteiz (erdialdea)	20:13

**APIRIK 3, IGANDEA**

Lerin	00:34
Lodosoa	02:40
Andosilla	04:22

Gasteiz (Elorriagako Atea)	21:00
Arkaute	21:47
Dulantzi	22:18
Heredia	23:04
Agurain	23:49

**APIRIK 3, LARUNBATA**

Zalduondo	00:48
Egino	01:52
Olazti	02:34
Bakaiku	03:56
Etxarri	04:24
Lakuntza	05:09
Hiriberri	06:16
Urritzola	06:57
Otxobi	07:50
Berriozar	09:03
Iruñea	09:26
Antsoain	09:47
Iruñea	09:56
Burlata	10:10
Atarrabia	10:24
Uhartea	10:33
Sarriguren	10:54
Iruñea	11:15
Barahain	13:43
Zizur Nagusia	14:09
Noain	15:06
Espartza	15:48
Astrain	16:39
Uterga	17:20
Gares	18:02
Mendigorría	18:49
Artaxoa	19:43
Tafalla	20:59
Larraga	23:02

San Adrian	04:48
Azagra	05:14
Cadreta	07:29
Corella	09:42
Cintruénigo	10:19
Tutera	11:45
Alesbes	15:44
Martzilla	16:38
Kaparrotsu	17:29
Zarrakaztelu	19:30
Kaseda	21:53
Gabarderal	22:35
Zangoza	23:01
Ledeia	23:40

**APIRIK 4, ASTELEHENA**

Irunberri	00:39
Domeño	01:18
Nabaskoitze	03:07
Burgi	04:45
Erronkari	05:58
Izaba	06:37
Uztarrotze	07:10
Itzaltzu	08:47
Otsagabia	09:07
Ekzarotze	09:20
Abaurregaina	10:45
Abaurrepea	11:08
Garralda	12:18
Aurizberri	13:10
Orreaga	14:02
Luzaide	15:45
D. Garazi	17:00
Lakarra	17:42
Lartabale	18:41
Donaxiti	19:25
Muskildi	20:30
Maule	21:28
Xarrrikotapea	22:27

**APIRIK 5, ASTEARTEA**

Donapaleu	00:00
Iholdi	02:04
Ortzaize	03:11
Baigorri	03:52
Erratzu	05:55
Arizkun	06:15
Elizondo	06:47
Ziga	07:36
Berroeta	08:02
Almandoz	08:21
Arraitz	10:05
Larrainzar	10:44
Jauntsarats	11:49
Aldatz	12:48
Mugiro	13:21
Lekunberri	13:34
Iruztzun	15:29
Azantza	17:24
Genbe	18:39
Muetz	19:18
Lizarra	20:56
Iratxe	21:41
Murieta	22:45
Antzin	23:05
Acedo	23:44

**APIRIK 6, ASTEAZKENA**

Kanpezu	00:40
Genevilla	01:15
Marañon	01:47
Bernedo	02:21
Baxauri	03:12

Albaina	04:09
Trebiñu	05:21
Argantzón	06:19
Langraitz	07:10
Izarra	09:44
Murgia	10:29
Manurga	11:21
Zeanuri	13:20
Areatza	14:25
Igorre	15:09
Lemoa	15:38
Usansolo	16:16
Larrabetzu	16:41
Zamudio	17:35
Derio	18:01
Erandio	18:56
Bilbo (San Ignazio)	19:36
Bilbo	22:06
Bilbo (Zazpi kale)	23:40
Bilbo (Zorrotxa)	23:40
Barakaldo	23:51

**APIRIK 7, OSTEGUNA**

Sestao	01:07
Trapagaran	01:31
Ortuella	02:00
Abanto	02:38
Muskiz	03:22
Zierbena	04:15
Santurtzi	04:52
Portugalete	05:29
Getxo-Romo	06:24
Leioa	07:06
Getxo-Algorta	07:26
Berango	08:19
Sopela	08:37
Urduliz	08:58
Gorliz	09:41
Gatika	10:42
Mungia	11:05
Bakio	12:21
Bermeo	13:23
Mundaka	14:20
Busturia	14:53
Gernika	15:38
Arteaga	16:35

Ibarrangelu	17:14
Ea	17:34
Lekeitio	18:39
Aulesti	19:33
Markina-Xemein	20:37
Berriatua	21:30
Ondarroa	22:29
Mutriku	23:20

**APIRIK 8, OSTIRALA**

Deba	00:01
Zestoa	01:30
Zumaia	02:58
Getaria	03:55
Zarautz	04:26
Orio	05:21
Usurbil	06:26
Lasarte	07:11
Urmieta	08:13
Andoain	08:43
Billabona	09:55
Tolosa	10:40
Bidania	11:51
Errezil	12:23
Azpeitia	13:26
Azkoitia	14:07
Urretxu	15:49
Zumarraga	16:08
Ormaiztegui	17:00
Segura	17:46
Idiazabal	18:18
Lazkao	19:10
Beasain	19:36
Ordizia	20:09
Legorreta	21:01
Altzo	21:59
Tolosa	22:25
Ibarra	22:45
Berastegi	23:43

**APIRIK 9, LARUNBATA**

Leizua	00:35
Ezkurra	01:53
Zubieta	02:54
Doneztebe	03:40
Sunbilla	04:06
Igantzi	05:07
Lesaka	05:40
Bera	06:17
Urruna	07:11
Azkaine	07:44
Senpere	08:23
Sara	09:34
Zugarramurdi	10:40
Ainhoa	11:21
Erpeleta	11:54
Itsasu	12:27
Kanbo	12:51
Hazparne	13:46
Haltsu	15:21
Uztaritze	15:48
Milafanga	16:33
Hiriburu	16:59
Baiona	17:28
Angelu	19:43
Biarritz	20:16
Bidarte	21:34
Getari	22:07
D. Lohitzune	22:20
Ziburu	23:10
Urruna	23:41

**APIRIK 10, IGANDEA**

Hendaia	00:14
Irun	00:53
Hondarribia	01:39
Irun	02:21
Oiartzun	03:09
Oreretia	03:44
Lezo	04:03
Pasaia	04:32
Astigarraga	06:19
Hernani	06:49
Donostia (Anorga)	07:36
Donostia (Parte zaharra)	09:05
Donostia (Amaiera)	12:30

# 22. KORRIKAREN ibilbidea

## ERANTZUNAK

### KORRIKAREN HISTORIA LABURRA

1. **Euskaltzale:** *vascófilo, -a; bascophile*
2. **Bultzatu:** *fomentar; promouvoir*
3. **Antzeko:** *parecido, -a; pareil, -eille*
4. **Antolatu:** *organizar; organiser*
5. **Zeharkatu:** *atravesar; traverser*
6. **Udazken:** *otoño; automne*
7. **Lekuko:** *testigo; témoin*
8. **Eskuz esku:** *de mano en mano; de main en main*
9. **Ondoko:** *siguiente; suivent*
10. **Arazo:** *problema; problème*
11. **Debekatu:** *prohibir; interdire*
12. **Mendate:** *puerto de montaña; port de montagne*
13. **Udaberri:** *primavera; printemps*
14. **Izorratu:** *fastidiar; déranger*
15. **Elurte:** *nevada; chute de neige*
16. **Eta abar:** *etcetera; et cetera*
17. **Lortu:** *conseguir; réussir*
18. **Zomorro:** *bicho; punaise*

## 22. KORRIKA

(1) martxoaren 31n; (2) apirilaren 9an; (3) garrantzitsuen; (4) irabazteko; (5) KORRIKAREN; (6) Gorritiren; (7) omenduak; (8) lan egiten; (9) pailazoen; (10) Abestiak; (11) Sustrai Colina bertso-lariak; (12) ateratzea; (13) biltzea; (14) bide.

### KORRIKAREN AHIZPAK

1.- ditu; 2.- zen; 3.- zuten; 4.- zuten/zen; 5.- zituzten; 6.- dira 7.- dute/da; 8.- zuen; 9.- ziren; 10.- zaizkio; 11.- zuen.

### KORRIKA LAGUNTZAILEAK NIRE BIZITZA ALDATU DU

#### A.

"Gizajo bat nintzen. Ez zitzaidan ezer ondo ateratzen. Lanpostu guztiak galtzen nituen. Plan bat egin nahi nuen bakoitzean, lagunek zeregin garrantzitsuren bat izaten zuten, beti: ezkontza bat, hileta bat, lapikoa sutan... Maskotekin ere ez nuen zorterik izaten: Pituk, nire katuak, leihotik ihes egin zuen, zazpigarren solairuan bizi ginela kontuan hartu gabe; eta arraintxoak ito egin zitzaidan. Semaforo guztiak gorri aurkitzen nituen. Kaleko banku batean esertzen nintzenean, beti egoten zen margotu berri. Zorigaitzokoa nintzen!

#### B.

Bizitza zoragarria zen. Dena ateratzen zitzaidan ondo: lanak edonon agertzen zitzaizkidan, perretxikoak bezala; lagunak ezin ziren ni gabe bizi; telefonoz gestio bat egin behar nuen bakoitzean, beti izaten zen langile gizatiar bat libre, nirekin hitz egiteko. Zoriontsua nintzen!